

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko urtarrilaren 27a. IX. urtea. 2.350. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Larraulen eskola nahi dutela aldarrikatuko dute aurtengo festan

Eskola txikien lehen festa Bidegoianen egin zuten orain 25 urte eta 2012koa datorren ekainaren 3an ospatuko dute, hasierako lelo berarekin: 'Eskola txikiak bizirik'

Larraulgo guraso elkarteak herri txikiak eskolen izaera erakutsi nahi duen dokumentala grabatzen ari da; eguno mugimenduari argazkia ateratzea dute helburu 06



BARRAKOLDAI.FOTOTEKA

Martxan jarri dute proiektore digitala Leidor aretoan

Egunotan ari dira estreinatzen proiektore berria Tolosako zinema aretoan 03



Film digitala duen disko gogorra, eta bere atzean, ohiko bobina. I. GARCIA

→ **Ibarrako festak, argazkitan.** San Bartolome jaietako 300 argazki inguru ikusgai daude kultura batzordeak kultur etxean antolatu duen erakusketan. Martxoaren 2a arte dago ikusgai eta nahi duenak gustuko argazkien kopia eskatu dezake. 07

Gaur emango diote Aresoko Inauteriei hasiera

Igandera arte iraungo dute festek; lehen egunean, eskea eta afaria dituzte 05

Kutxari buruzko proposamena onartu dute Tolosan

Beste udalekin kontseilari orokorra aukeratzearen alde egin du udalbatzak 02

Haur lapurtuen auzian, bi lagun deitu dituzte deklaratzera

Tolosako osasun zentro batean gertatutakoa argitu nahi du epaileak 02

Konfiantzan, Ikastola

Anoetako Herri Ikastola
943 65 29 32
www.anoetakoherriikastola.net

Izurako Ikastola
943 69 43 74
www.izurakoikastola.net

Jesusen Bihotza Ikastola
(Vilabona/Zizurkil)
943 69 23 21
www.jesusenbihotzaikastola.com

Laskorain Ikastola
(Tolosa)
943 69 71 22
www.laskorainikastola.net

Tolosako Inmakulada Ikastetxea
943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

Uzturpe Ikastola
(Obarra)
943 67 12 99
www.uzturpe.net

«Denon hondarrarekin sekulako hondartza» egin daitekeela aldarrikatu dute Laskoraingo ikasleek

Lodosako ikastolari laguntzeko elkartasun eguna antolatu dute; giza-katea osatu dute ikasleek

Itzea Urkizu Tolosa

Lodosako (Nafarroa) Ibaialde ikastolaren egoera ekonomikoa larria dela eta, Laskorain ikastolako ikasleek giza-katea egin zuten atzo, elkartasun egunaren barruan, eta hala nabarmendu zuten Beñat Azaldegiko ikasleak: «Denon hondarrarekin sekulako hondartza egin daiteke». Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Batxilergoko 2. mailara bitarteko neska-mutil guztiek parte hartu zuten ekimean, eta lepoan zapi gorria jantzi zuten, sinbolo moduan.

Elkartasun egunaren helbururik behinena, Lodosako ikastolara bidaltzeko dirua biltzea izan zen, ikasle bakoitzeko euro bana jomugatzat jarritz: «Ikasle bakoitzak euro bana jarritz gero, 1.500 euro aterako ditugu, eta lagungarria izango zaie». Horretarako, Batxilergoko 1. mailako ikasleak lanean aritu ziren goizeko atsedean garaian, txistorra, edariak eta antzekoak saltzeko txosnan; dantza ikuskizuna eta beste zenbait jarduera ere egin zituzten.

Sakramentinoetako patioan, berriz, ikasleek Tolosatik Lodosarainoko bidea irudikatu zuten, txanponak ilaran jarriaz. Arratsaldean txokolatea prestatu eta euro baten truke eskaini zieten, ikasle nahiz gurasoei.

Datorren otsailaren 5ean Sar-tagudan (Nafarroa) antolatu duten festa egunean ere izango da

Ibaialde ikastolari laguntzeko aukera. Era berean, Lodosako Ibaialde ikastolaren alde diru laguntzaren bat eman nahi dutenek, Euskadiko Kutzako honako kontu korrontean egin dezake: 3035 0153 46 1531026051.

Helduenek gazteenei

Azaldegik azaldu zuenez, duela bi aste izan zuten Lodosako ikastolaren egoeraren berri. Honen aurrean, ikasle zaharrenek zerbait egin zitekeela pentsatu zuten: «Oso triste da Nafarroako ikasleek duten egoera. Euskararen erabilera erabat mugatua den toki batek tristura handia ematen du». Horrela beraz, batxilergoko gazteak aritu dira, ikasle gazteenei Lodosako ikastolaren egoera azaltzen: «Harrituta geratu dira, eta haserre. Laguntzeko beharra sentitu dute».



Usabaletik Sakramentinoetaraino osatu zuten giza-katea, atzo. R. CALVO

Irudia



PROPOSAMENA ONARTU DUTE PLENOAN

Herenegun, ezohiko osoko bilkura izan zen Tolosako pleno aretoa, Kutzako kontseilari orokorra beste udal batzuekin batera aukeratzearen proposamena onartu zuten. Lehen bozketan, proposamenak Bilduren aldeko zortzi bozka eta aurka-

ko beste hainbeste jaso zituen, EAJren eta PSE-EEren zinegotziena. Aralarren zinegotzia abstentitu egin zen. Bigarren bozketan emaitza bera izan zen, eta beraz, legeak dion moduan, alkateak hartu zuten erabakia. I. URKIZU

Urteko museo europarra izateko izendapena jaso du Topic-ek

Epaimahaiaren erabakia ez da 2012ko maiatza bitarte jakinaraziko; Portugalen egingo dute sari banaketa

I. Urkizu

Tolosako txotxongiloen nazioarteko zentroak, Topic-ek, 2012. urteko Museo Europarra izateko izendapena jaso berri du. Epaimahaiaren erabakia datorren maiatzean jakinaraziko dute, Portugalen.

2011. urtean, Topic-ek 14.000 bisitari baino gehiago jaso zituen, eta Colorinen erakusketa aipagarrienetakoa izan da. Zentroak antolatutako tailer eta ikastaroei ere harrera ona izan dutela diote.

Tolosan bi lagun deitu dituzte deklaratzera ume lapurtuen auzia dela eta

Otsaileko lehen hamabostaldian egin beharko dituzte beren adierazpenak, medikuak eta emaginak

I. Urkizu

Tolosako epaitegiko epaile batek, bi lagun deitu ditu lekuko moduan deklaratzera, Tolosako osasun zentro batean ustez gertatutako ume lapurtuen kasu bat argitze aldera. Deklaratzera deitu dituztenetako bat medikua da, eta bestea, berriz, emagina.

Otsaileko lehen hamabostaldian egin beharko dituzte euren adierazpenak, Tolosako epaitegian.

• tolosa@hitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar dugu, adineko pertsona bat zaintzeko Bidanien. Interesatuak, dei dezatela 639 214555 telefono zenbakira.

ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokagai Alegiako San Juan kalean;

3 logela, terraza eta bi trasteleku. Interesatuak, deitu 626 867636 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Denda.** Ibarren: frutategia, arrandegia eta urdaitegia dituen denda salgai Ibarren. Aukera bikaina da. Interesatuak, deitu 636 143514 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Leitzan etxebizitza salgai. Aukera ezinhobe da. Lehendabiziko pisua, oso egoera onean dago, eta etxea bizitzera sartzeko prest. 90 metro karratu ditu. Sukaldea, bainugela, hiru logela handi eta trasteleku. Igogailua jarri berria eta berogailuarekin. Interesatuak, deitu 649 20 83 10 telefono zenbakira.

Proiektore digitalak hasi du bere bidea

Gero eta murriztagoa da 35 mm-ko filmeen eskaintza, eta hori izan da gailu berria jartzearen arrazoietako bat

Imanol Garcia

Leidor aretoko proiektore digital berria atzo estreinatuta zuten, zine forumean eman zuten *Le havre* filmarekin. Asteburuan ikusi ahalko diren filmak ere proiektore digitalarekin emango dituzte. Tolosako Udalak hiru arrazoi izan ditu kontuan ekipamendu berria erosterakoan. Alde batetik, dagoeneko antzematen hasia zela filmak kontratatzeko orduan, 35 mm-ko filmen eskaintza geroz eta murriztagoa zela. Bestetik, «zine programazioaren taxuzko kudeaketa publikoa bultzatzeko borondatea» duela esan du udalak. Diru laguntzak jasotzeko aukera izan da beste arrazoiak. Azaroan Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen diru laguntzen deialdia, horrelako erosketei laguntzeko. Diru laguntza horri esker, erosketaren ia %50eko laguntza izango du udalak.

Ekipamendu berriak eskainiko dituen hobekuntzak ere zerrendatu ditu udalak. Batetik, programatzerakoan aukera zabalagoa izatea, «askatasuna eta ziurtasuna irabaziz filmak kontratatzeke». Aldaketa ohiko programazioke atal guztien onurarako izango dela azaldu du: zine foruma, haur saioak eta asteburuko zine komertziala. «Honen adierazgarri izango da proiektorearen estreinaldirako prestatutako egitaraua», gaineratu du udalak. Proiektorearen kalitatearen aldetik, batez ere emanaldi digitalen soi-



Elektronen, 35 mm-ko proiektorea, eta, eskuinean, proiektore digitala. I. GARCIA

nabarmenduko dela azaldu du.

3D sistemari dagokionez, momentuz ez du udalak premiazko ekipamendutzat jo: «Merkaturaren bilakaeraren arabera erabakiko dugu zein den momenturik interesgarriena sistema hori gehitzeko, erositakoa prest baitago horretarako».

Filmak, disko gogorrean

Proiektore digitala jarri bada ere, 35 mm-ko filma ematen dituen proiektorea ez da kendu. «Oraindik film batzuk emango dira proiektore horrekin», azaldu du Juankar Oyanluze Leidor aretoko teknikariak. Soinu kalitatea hobea bada ere, digitalaren irudi kalitatea eta bestearena ez dira hain ezberdinak. «35 mm-ko bilkaria modu onean badago, digitala bezain ondo ikusten da», esan du Oyanluzek. «Gainera, digita-

lak ez du kolore beltza, guztiz beltza, ematen, eta besteak bai».

Film digitalak disko gogorrean iristen dira Leidorrera. Gero, disko gogor horretatik proiektoreak duen zerbitzarira kopiatu behar da, eta ia filmak berak irauten duen bezainbeste denbora hartzen du horretarako. «Filmak giltzapetuta egoten dira, eta banaketa enpresak egun jakin batzuetako, areto bakoitzari bere gakoa ematen dio, filma ikusi ahal izateko», dio Oyanluzek. «Egun horiek pasatu ondoren, berritri giltzapetuta gelditzen da, eta ezin da proiektatu».

Leidor areto proiektore gelan gero eta gutxiago erabiliko dituzte zinemaren irudiari bidetan lotuta egon diren bobina handiak. «Proiektoreari xarma kentzen zaio bobinak ez badituzte erabiltzen», esan du teknikariak. «Badirudi 35 mm-ko formatua

↓ Egitaraua

URTARRILAK 28, BIHAR

- 17:00. *Alvin y las Ardillas 2.*
- 19:30 eta 22:30. *Misión imposible IV.*

URTARRILAK 29, ETZI

- 17:00. *Alvin y las Ardillas 2.*
- 19:30 eta 22:00. *La fuente de las mujeres.*

URTARRILAK 30, ASTELEHENA

- 20:30. *La fuente de las mujeres.* Ikuslearen eguna

aurki desagertuko dela. Horien kostua banatzaileentzako handiagoa da. Esaten dutenez, bi urte barru desagertu daiteke».

→ Laburrak

Samaniego ikastetxean, ate irekiko jardunaldiak

HEZKUNTZA ▶ 2012/13 ikasturterako matrikulazio kanpaina dela eta, Samaniego ikastetxe-ko zuzendaritzak ate irekiko jardunaldiak antolatu ditu hilaren 31rako eta otsailaren 2rako, 16:45ean, Haur Hezkuntzako eraikinean. Egitasmo honi buruz argibide gehiago nahi izanez gero 943 65 10 63 edo 688 60 33 51 zenbakietara deitu daiteke, 09:00etatik 12:30era edo 14:30etik 18:00etara.

Laskorain ikastolan, informazio saioak

HEZKUNTZA ▶ Laskorain ikastolak matrikulazio kanpainaren barruan bi informazio saio antolatu dituzte. Bata, DBHko guraso eta ikasle berrientzat Usabalgo liburutegian. Bestea, Haur Hezkuntzako familia berrientzat Sakramentinoetako aretoan. Informazio saioak hilaren 30ean, 17:30ean, izango dira. Ondoren ikastetxea bisitatu ahal izango da.

Bidaia eta Ze Esatek! taldeak, Bonberenean

MUSIKA ▶ Bonberenean bi kontzertu izango dira asteburuan. Gaur, Bidaia bikotea izango da, 22:30ean. Bihar, 22:30ean ere, Ze Esatek! taldeak emango du kontzertua.

Ras eta Lobo Electrico taldeen kontzertua

MUSIKA ▶ San Esteban auzo elkarteak kontzertua antolatu du, biharko, bere lokalean. 22:30ean hasiko da emanaldia eta bi talde izango dira. Alde batetik, grind estiloa lantzen duen Ras taldea, eta, bestetik, rock musika egiten duen Lobo Electrico taldea.

Bikusik eta Paul San Martin, Errota tabernan

MUSIKA ▶ Errota tabernan bi kontzertu izango dira asteburuan. Gaur, Bikusik bikoteak emango du, 23:00etan. Bihar, ordu berean, Paul San Martinen txanda izango da.

Kirikiñoren erakusketa, bihartik zabalik

GIZARTEA ▶ Kirikiñok 25. urtereneko erakusketa zabalduko dute bihar, Tolosako kultur etxean. Otsailaren 5a arte, 17:30etik 20:30era, bisitatu ahal da. Bertan Inauteriko argazkiak, historia iruditan laburtzen duten 25 panel eta DVD interaktiboa egongo dira.

Ikasleek osatzen duten haizezko instrumentuen taldeen kontzertua, bihar, musika eskolan

Miguel Angel Morenok zuzenduko du emanaldia; egitarau oparoa eskainiko dute musika ikasleek

I. Garcia Tolosa

Eduardo Mocoroa musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, bihar, eskola bertako areto nagusian, Miguel Angel Morenok zuzenduta. 19:00etan hasiko da emanaldia, eta ikasleek osatzen duten haizezko instrumentuen taldeek eskainiko dute.

Egitarau oparoa izango dute entzuleek. Bonbardino laukoteak *The Sreuous life* joko dute hasieran. Ondoren, egurrek eta tronpetek *Pavana eta Gallarda* obra eskainiko dute. Tronboi laukoteak *Rag-time dance* joko dute. Gero, tronpa, bonbardinoak eta tuba ariko dira. *The high school cadets* obrarekin. Tronboi taldeak *The beau ideal march* joko du, eta ondoren, flautak, oboeak, klarineteak eta saxoak *Suite 4 (Re-m)* eskainiko dute. Tronboi laukoteak *A breeze from Alabama* joko du. Bukatzeko, ikasle guztiak batera *Le gamin de Paris* obra eskainiko dute.



Musika eskolako haizezko instrumentuen ikasleak. HITZA

Erredakzioa

Tolosaldeko ikastola gehienak 60ko eta 70eko hamarkadetan sortutako ikastetxeak dira. Ikastolen sarera hurbildu den azkena Inmakulada ikastetxea da, 2008an sartu baitzen sarean. Anoetako herri ikastola, Ibarrauko Uzturne ikastola, Tolosako Laskorain ikastola eta Villabona Jesusen Bihotza ikastola ere sare horren barruan aritzen dira lanean.

Herri ekimenez edota elizaren babesari esker sortu ziren ikastetxe hauen sorreran, **euskara eta euskal kultura sustatzea** izan zen hezkuntza proiektuaren xede nagusia. Bide batez, **ideologikoki anitzak, gizartera irekiak eta pedagogikoki aurrerakoiak izateko ikusmirarekin** abian jarri ziren bailarako ikastolak.

Gaur egun ikastola hauek **guztia EHI Europar Kooperatiba Elkarteko kideak dira**, eta Tolosaldeko 3.371 ikasle eskolatzen dituzte. Anoeta, Ibarra eta Irurako ikastolak herriko ikastetxe bakarrak dira eta ikasleen gehiengoa (batezbesteko %75a) jasotzen dute. Inmakulada ikastetxea, berriz, Lanbide Heziketako ikastola bakarra dugu bailaran, gainera Gipuzkoan osasun arloko moduluak eskaintzen dituen bakarra ere bada, beraz, gelak beteak ditu eta hezkuntza arautuaz gain, lanbide egonkorra ere eskaintzen du langabetuentzat eta lanean daudenentzat. Jesusen Bihotza ikastolak Villabonako ikasleen %68a eskolatzen du, eta Haur Hezkuntzako ikasleen erdiak Zizurkilen duen egoitzan. Laskorain ikastolak azkenik, Tolosako ikastetxe handienak, herriko ikasleen %38

Tolosaldean, zazpi ikastola ari dira euskara eta euskal kultura sustatzeko helburua oinarri duen hezkuntza proiektuarekin lanean; ikastolen sarean daude guztiak.

Euskarazko urratsak bailaran

inguru eskolatzen du. **Bailarako ikastolek ibilbide akademiko osatua eskaintzen dute.**

Aldi berean, ikastetxe bakoitzak, bere herrian oso sustraituta egonik, herriko familien nahi eta itxarobideetara egokitzen du zerbitzua. Hori dela eta, Irurako ikastolak 2-12 urteko ikasleen irakaskuntza zerbitzua eskaintzen du; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berriz, Anoetako ikasleekin batera, Anoetako herri ikastolan egiten dute Irurakoek. Jesusen Bihotza ikastolak Villabonan nahiz Zizurkilen Haur Hezkuntza etapa eskaintzen du. LH eta DBH berriz, elkarrekin egiten dute ikasle guztiak Villabonan. Ibarra-ko Uzturpe ikastolak derrigorrezko eskaintza osoa du, 2-16 urte bitartekoa alegia. Tolosako Laskorain ikastolak, 0-2 etapa eskaintzeaz gain, Tolosaldeko ikastoletako ikasleak jasotzen ditu Batxilergoan. Inmakulada ikastetxeak, azkenik, bailarako ikastoletako ikasleentzat ez ezik, Gipuzkoakoentzat ere, Lanbide Heziketa eskaintzen du. Eskaintza akademikoaz gain, **hezkuntza integrala** ematea da ikastola hauen helburua eta horretara bideratzen dituzte eskola orduz kanpoko eskaintza nahiz zerbitzuak, besteak beste: jangela, haur txokoa, autobusa, ludoteka...

Hezkuntza osatuaz eta integra-

laz ari garenez, aipamen berezia merezi dute ikastola hauen hezkuntza eskaintzan berebiziko garrantzia hartzen duten berriztapen proiektuek. Arestian aipatutako izaera aurrerakoiari pedagogia mailan erantzun nahian, aitzindari izan dira euskararen erabilera sustatzen, **Euskaraz Bizi** proiektuaren bidez, baita atzerriko hizkuntzaren ezarpen goiztiarra abian jartzen ere, **Elea-nitz** egitasmoaren ildotik. Gaur egun, bailarako ikastola guztiak hizkuntzen irakaskuntzarako curriculum integratua Hizkuntza Proiektuaren gidaritzapean garatzen ari dira. Bestalde, Urtxintxa, Txanela eta Ostadar materialgintza bidelagun, urrats sendoak ematen ari dira **euskal curriculu-**

maren ezarpenean, Ikaskuntza Kooperatiboa gelako jardueretan txertatuz, ikasleen arteko elkar eragina bilatuz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko. Inmakuladako ikastetxearen kasuan, lanbide heziketaren ezaugarriak direla medio, ahalegin handia egiten ari da erabiltzen duten materiala euskaratzen. Informazio-komunikazio teknologien erabilera berriz, irakaskuntza metodologia aldatzeko tresna beneratzen indartsua, curriculumean txertatuta dute **IKT planari** eta **Ikasys proiektuari** esker. Giza heziketaren aldetik bestalde, **Bizikidetzua Plana**, **Adimen Emozionalako Proiektua**, elkartasun ekintzak eta beste ikastetxeekin batera, garapen jasangarriariko

Eskola Agenda 21 egitasmoa azpimarratuko genituzke. Tolosaldeko ikastolak bat datoz, era berean, bikaintasunerako kudeaketa sistemaren aplikazioan; EFQM ereduari jarraiki, **guztiak lortua dute Zilarrezko Q saria**, eta Laskorain ikastolak Urrezko Q-a.

Hortaz, elkarren arteko koherentzia hezkuntza proiektuetan ez ezik, kudeaketan ere bermatuta dago. Are gehiago, EHI Europar Kooperatiba Elkarteak Formazio eredu propioa eskaintzen die ikastetxe hauek langile guztiei, eta zuzendaritza nahiz administrazio mailan koordinatzeko mintegiak eratuak ditu. Ikastolek partekatzen duten berezko izaera honetan bestalde, ezinbestekoa da familien inplikazioa kudeaketan eta funtzionamenduan. Proiektuan sendo eta indartsu dirau, azkenik, langileen egonkortasunagatik eta guztiak (guraso, irakasle eta irakasleek) ikastolarekin eta ikasleekin erakusten duten konpromisoa eta inplikazioari esker.

Aipatu berri dugun sendotasunaren isla dira bailarako ikastolek lortzen dituzten emaitza akademiko onak, erkidegokoekin eginiko alderaketaren bidez egiaztatutak. Halaber, familien asebetetze maila orokorra ona da, eta honen guztiaren aitortza argia, matrikulazio indizeak azken urteetan erakusten duten goranzko joera da.

Etorkizunari begira, erronka handiak dituzte Tolosaldeko ikastolek, bailarako erreferente izaten jarraitzeko ahaleginetan. Ikusmirari erantzun ahal izateko, instalazioak egokitzeko eta hornitzeko inbertsioak egin nahi dituzte. Pedagogia mailan berriz, material eta egitasmo berritzaileak garatu nahi dituzte, irakaskuntzaren kalitatea areagotuz. Eta hori guztia lortzeko, helburu bateratuak, ilusioa, inplikazioa eta elkarren arteko lankidetzak dituzte.



Irurako ikastola 2008an inauguratu zuten. HITZA

Saldías Miguel

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

www.saldias-miguel.com

% 60 arteko aurrezkia

- Autoak
- Motoak
- Furgonetak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Komertzioak

- Komunitateak
- Istripuak
- E.P.S.V
- Osasuna
- Inbertsioak
- etb.

Zazpiturrieta, 14 • 20200 **Beasain** • Tel.: 943 085 600

San Juan kalea, 6 • 20270 **ANOETA** • Tel.: 943 698 004

Nafarroa Etorbidea, 12 behe • 20400 **Tolosa**

Tel. 943 651 189

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea:

urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Ernio-bea Ikastetxea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Amakoa (12-16 urte)

Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691413

012277ea@hezkuntza.net

HAUR TXOKOA ZERBITZU BERRIA

7:30etatik 9:00tara

16:00atik 17:00tara

Biziki hazi, bizitzen hezi

Tolosa

943 673 948

www.hiru-kide.org

hirukide@hirukide.org

Inauterien hurrengo geltokia, Areso

Gaur arratsaldean botako dute jaien hasiera iragartzen duen suziria, eta igandera arte festa giroa nagusituko da herrian

Lagun Artea elkarteak estreinakoz guraso elkarte eta udalarekin antolatu ditu jaiak

Iñigo Terradillos Areso

Leitzarrak izan dira inauteriez gozatzeko lehenak, baina hurrengoek ez dute gehiegi itxaron beharrik, gaur arratsaldean hasiko baitira Aresoko inauteriak. Hiru egunez moztorro eta karrozen koloreek, musikak, dantzak, algarak eta zoramenak hartuko dute herria.

San Pedro jaietan bezala, orain arte herriko gazteak elkartzen diren Lagun Artea elkarteak antolatu izan ditu inauteriak. Aurten, ordea, guraso elkarteak eta udalak ere parte hartu du antolakuntzan. Lagun Artea elkartetik azaldu dutenez, «herritar guztiei zuzendutako jaiak» egitea nahi izan dute, «ahalik eta jende gehien animatzeko festan parte hartuz». Era berean, pasa den urteko jaiak izandako «arrakasta» ikusita, herritar guztiei eskerrak eman dizkiete antolatzaileek, «azken urte-etako inauteri onenak izan baitziren». Jazkoei eusten saiatzea da euren helburua, «guztien gustukoa den festaren parte herri osoa izanik».

Bestalde, ekitaldiak herriko leku bakarrera mugatu ordez, aurtengoan Aresoko elkargune ezberdinak erabiliko dituztela ere nabarmendu nahi izan dute. «Gure helburua herritarrek herrian ditugun baliabide guztietara mugitzea da», esan dute. «Jazko inauterietan, esaterako, igandeko bazkaria goiko elkartearen egitea erabaki genuen eta oso polita izan zen, bi elkar-teetako jendea elkartu baitzen; beraz, aurtengoa ere hori errepikatu nahi izan dugun». Mus txapelketa ere, herriko tabernan egingo dute berrikuntza bezala.

Bi otordu eta lehiaketa

Edozein ospakizunetan bezala, otorduek ere bere lekua dute inauterietan. Bi izango dira, bata larunbateko afaria, eta bestea igandeko bazkaria. Aurtengo beste berritasuna bi otorduetarako bonua erosteko aukeran egon da. «Herritarrek bietara animatu aldera» prezio bazuagoan jarri dituzte bietan izan nahi duenaren-

tzat. Bonuak aurrez erosteko aukera baino ez da egon, baina txarretak egunean bertan ere erosi ahaliko dira.

Igandeko bazkarian banabarrak jateko aukera izanen da. Izan

Pasa den urteko parte hartze altua aurten ere errepikatzea espero dute antolatzaileek

ere, banabarren lehiaketa egingo dute. Parte hartzaile bakoitzak bere etxean prestatuko ditu, aurrez Lagun Arteak elkarteak banatu dituen banabarrak.

Herritar guztiak mozorrotzeko gonbita

Inauterien ardatza moztorroak eta karroza izan ohi dira. Pasa den urteko jaietan «oso karroza politak» izan zirela azaldu dute antolatzaileek. «Hiru karroza irten ziren, oso politak eta landuak, eta jende ugari moztorrotu zen. Aurten ere, herritar guztiak animatzeko ditugu moztorrotuta irterera, eta familian edo lagun artean karrozekin ateratzera, ongi pasatzeko ez baita askorik behar».

● leitzaldea@hitza.info



Pasa den urteko inauterietan, herritar batzuk pailazoz moztorrotu ziren. IMANOL GARCIA

↓ Egitaraua

URTARRILAK 27, OSTIRALA

- **18:00.** Txupinazoa plaza zaharrean.
- **Ondoren.** Lagun Artekoekin herriko eskea, herritar guztiei irekia. Plaza zaharrean elkartu, eta denak batera abiatuko dira.
- **21:00.** Lagun Artekoen afaria Pake Toki elkartearen.
- **22:30.** Mus txapelketa herrikoia Sastinean. Bikoteko 10 euro ordainduko da.

URTARRILAK 28, LARUNBATA

- **09:00.** Lagun Artekoen gosaria Pake Toki elkartearen.
- **10:00.** Baserritako eskea.
- **17:00.** Karrozen desfilea plaza zaharretik hasita.

- **18:00.** Aurtizko trikitilarien eskutik, musika plazan. Bitartean merienda egongo da gerturatzeko den ororentzat: txistorra, gazta eta hirugarre pintxoak.
- **21:30.** Herri afaria Pake Toki elkartearen. Menua: haragi zopa, gisadua, kontesa izozkia, kafea eta kopa. Haurrek 12 urte arte, 10 euro egunean bertan. Helduek 17 euro egunean bertan.
- **23:30.** Musika Aurtiztarren eskutik. Bitartean moztorro lehiaketa egingo da.

URTARRILAK 29, IGANDEA

- **14:00.** Banabar txapelketa eta bertso bazkaria Larrean elkartearen. Menua: Banabarrak, oilasko errea piperrekin, yogur musa, kafea eta kopa. Haurrek 12 urte arte, 10 euro egunean bertan. Helduek 22 euro egunean bertan.
- **Bazkal ondoren.** Bertso saioa egongo da, Julio Soto eta Beñat Gaztelumendiren eskutik.
- **17:30.** Haurrentzat pelikula.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA
PEDRO M^o OTAÑO HERRI ESKOLA
Pagamuño auzoa, 16 - ZIZURKIL
Tel.: 943 691 478
P.E: 012041aa@hezuntza.net
www.pedromariaotano@hezuntza.net
Aurrematrikulazioa:
Urtarrilak 30etik Otsailak 10 arte

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

samaniego
telefonoa 943651063
webgunea www.samaniego-tolosa.com
e-posta 012249aa@hezuntza.net
:: Haurreskola (0-2 urte Plaza Berrian)
:: Haur eta Lehen Hezkuntza (2-12 urte Samaniegon)
07:30etik aurrera
Haur Txakoa

ORIXETOLOSA
telefonoa 943651387
webgunea www.orixe.net
e-posta 012980aa@hezuntza.net
Mundu Zabalerako Zurbia
:: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
:: ZIG - Lanbide Tailerra
:: Batxilergoak

Euskaratik eta Euskaraz
Matrikula epea: urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

GOIKOETXEA
sagardotegia
Sagardo Naturala
Elbarrena Kalea, Aroztegi baserria, 9
20490 - Lizartza • Tel.: 609 71 42 03

Idoia Gobantes
- Elikagaien Zientzia eta Teknologian doktorea
EHU unibertsitatean. Kolegiatu zenbakia: 2101
- Giza Elikaduran eta Dietetikan diplomatu.

ELIKADURA HEZKUNTZA ETA DIETETIKA AHOLKULARITZA
• Elikagai ohiturak hobetzeko helburu, elikaduraren ikuspuntutik aholkatzea.
• Umeak, gazteak, helduak eta adinekoak, haurdun dauden emakumeak, edoskitzea, menopausia, pisuaren gainbegiratzea, kirolariak, dietoterapia (patologiak).

Hitzordua eskatzeko:
ZAINBERRI
Rondilla kalea, 6 • Tolosa • 943 65 21 86

25 urte beteko ditu ekainean Eskola Txikien festak. 1988. urtean Bidegoianen ospatu zen lehena 'Eskola txikiak bizirik' lelopean, eta 25 urte geroago, Larraulen egingo da jaia ekainaren 3an.

Eskola txikiak aldarrikatuz

Eneritz Maiz Larraul

Ekainaren 3an izango da eskola txikien festa Larraulen. Aurten 25 urte beteko dira, Bidegoianen lehen festa egin zenetik. *Eskola txikiak bizirik* lelopean egin zen festa hura, eta oraindik ere, aldarrikapen berberarekin jarraitzen dute Gipuzkoako herri eta auzoetako eskola txikiak.

Azken bost edo sei urteak oso mugituak izan dituzte Larraul herrian. Lan handia egin behar izan dute dena hasieratik antolatzeko: eskolaren irekiera, guraso elkar-tearen sorrera, zaintza-zerbitzua, bilerak eta negoziazioak Hezkuntza sailarekin...

Legearen arabera, eta duten haur kopurua kontuan hartuta, larrauldarrei eskola propioa dagokie. Gaur egun, ordea, oraindik ez diete onartu eskola propioa izateko duten eskubidea, eta Astesuko Pello Errota eskolaren gela balitz bezala funtzionatzen dute.

Beraien ekarpena, eskola txikien mugimenduari, festa antolatzearen ardura hartuz izango da. Guzti honen aurrean, eta eskola txikien mugimenduari mesede egin nahian, festa antolatzearen ardura hartu zuten.

Era berean, beraien egoeraren berri eman nahi dute. Pasa den urteko ekainean, Abaltzisketako Txalburu eskolari hartu zion lekukoa Larraulek.



Ikaztegiatetako Herri Eskolan astelehenean egin zuten grabaketa; Maria irakasleak ipuina kontatu zien guztiei. Ikasle eta irakasleekin batera, ikasle ohiak, guraso elkartekoak eta udal ordezkariak izan ziren. E. MAIZ

Ez dute etsi, eta gaur egun herrian duten zerbitzua handitu nahi dute. Haur eskolaz gain, hiru gela dituzte. Eskola txikiak ezaugarria den adin aniztasuna ematen da geletan, eta urteik urtera haur gehiago dituzte.

Eskola txikiaren festa antolatzeko hasiak daude. Guraso elkar-teko kideak hainbat arlotan bana-

tuta lanean ari dira: Ekonomia, ikuskizunak, komunikazioa, salmenta, trafikoa eta zerbitzuak bereiztu dituzte, eta martxa onean doaz prestaketa lanak.

Zerotik sortutako eskola

Eskola txikiaren kontuarekin, Larraulen zerotik hasi dira. Eskola egon zen, baina hainbat urtez

larrauldarrek hezkuntza ezin izan dute herrian jaso. Ezerezetik hasi behar izan dute, eta zenbait momentutan Eskola Txikien inguruan ezjakintasun eta gaizki ulertze handia zegoen.

Eta zerbaite egiteko beharra sentitzen zuten, eskola txikiak hezkuntza eredu behar bezala ulertzeko eta prestigioatzeko. Bai

eskola txikien mugimenduan, eta baita eskola txikien mugimendutik haratago ere.

Larraulgoa eskola txikien mapan jarri nahi dute. Eta besteak beste, azken urteetako lana irudikatatu asmoz, ikus-entzunezko grabatzeko ideia izan dute buruan.

• tolosaldean@hitza.info

Iñaki Alcalde • Larraulgo guraso elkarteko kidea

«Gure ekarpena festa antolatzeara eta dokumentalala egitea izango da»

E. Maiz Larraul

Iñaki Alcalde (Lasarte-Oria, 1973) Larraulgo Guraso Elkarteko beste kide batzuekin batera, eskola txikien izaera erakutsi nahi duen ikus-entzunezko grabatzen ari da. Ikus-entzunezkoaren helburua eskola txikiak hezkuntza ereduaren aukeren berri eman eta zabaltzea da.

Idea bururatu, eta eskola txikien inguruko ikus-entzunezko grabatzen arizarete.

Ikus-entzunezkoaren ideia Larraulen sortu zen eta Eskola Txikien Guraso Elkartearen Koordinakundean aurkeztu genuenean

oso ondo ikusi zuten. Zuzendaritzako kideak 2012. urterako hainbat ekimen antolatzen ari ziren, eskola txikien festaren 25. urterrena ospatzeko, eta dokumentalala ospakizun horien barruan kokatzen da.

Idea izatetik egitera pauso handia dago. Nolako izan da bidea?

Ikus-entzunezko hasieratik lantalde pluralean landu da: irakasle, guraso eta udal ordezkariak izan dira. Pasa den urteko uztailea eta iraila bitartean hamar bat laguneko taldea elkartu ginen: koordinadorako aitzindariak diren Gloria Castaños eta Bixi Arrue; gaur egungo zuzendaritzakideak

diren Mikel Olano eta Irati Aldazabal; irakasleen koordinatzaile den Arantxa Oñiden eta udal ordezkarietatik Jexux Murua eta Iker Otamendi. Larraulgo guraso batzuek ere parte hartu zuten. Bakoitzaren buruan ideia ezberdin bat zegoen, eta aukera horien artean, nolabait zein dokumental mota egin nahi genuen definitu genuen.

Lan talde horretan zer erabaki zen?

Idea jasa horretan argi geratu zen dokumental hiru hanka edukitu behar zituela: eskolaren barruan gertatzen dena, hau da, irakasleen eta ikasleen arteko elkar-lana; guraso elkar-teen implika-

zioa eta udalen partaidetza egongo litzateke.

Zer jaso edo adierazi nahi duzue dokumentalarekin?

Egungo mugimenduari argazkia ateratu nahi diogu. Hezkuntza eredu gisa prestigioatzea; mugimenduari lotutako sentimendua bultzatu eta indartzea; komunitate osoaren inplikazioa beharrezkoa da, hau da, ikasle, guraso, irakasle, udalari, guztiak beharrezkoak dira. Horretarako 27 eskolentarte inplikazioa beharrezkoa da, hau da, ikasle, guraso, irakasle, udalari, guztiak beharrezkoak dira. Horretarako 27 eskolentarte inplikazioa beharrezkoa da, hau da, ikasle, guraso, irakasle, udalari, guztiak beharrezkoak dira. Horretarako 27 eskolentarte inplikazioa beharrezkoa da, hau da, ikasle, guraso, irakasle, udalari, guztiak beharrezkoak dira.

Larraulgo gurasoak ari zarete lanean, ezta?

Aurten gure ekarpena bi maila-

tan emango dugu; alde batetik, festa antolatu eta bestetik, dokumentalala eginez.

Noiz hasi zineten grabaketekin?

Irailean hasi ginen grabaketekin eta otsaila alderako bukatuko dugu. Grabazioen azken ukituak egiten ari gara, eta jarraian muntaiaren fasean sartuko gara.

Noiz aurkeztuko duzue?

Aurreikuspenen arabera, maiatzean festarekin batera aurkeztuko da, baina helburua festa egunean proiektatzea izango da.

Zein herritan egon zarete?

Berrobin, Altzon, Gabirian, Zerrainen, Olaberrian, Ikaztegiatan, Larraulen, Bergarako Angiozar auzoan eta Igeldon egon gara. Herriez gain auzoen kasuistika ere hartu nahi genituen, eta beraien izaera ere sartu nahi izan dugu.

Eta finantziarioa nola dago?

Koordinakundetik bideratu da, eta udalei eskatu zaie laguntza dokumentalala egin ahal izateko.

• tolosaldean@hitza.info



San Bartolome jaietako ekitaldi guztietako mementoak ikus daitezke erakusketan. HITZA

Iazko festetako uneak

San Bartolome jaietako 300 argazki ingururekin osatu dute erakusketa; martxoaren 2ra arte egongo da ikusgai

Iñigo Terradillos Ibarra

Zabalik dago Benito Izagirre kultur etxean pasa den urteko San Bartolome jaietako argazkiekin eginiko erakusketa. Martxoaren 2ra arte egongo da irekita, eta goizez, 10:30etik 13:00etara bitarte, eta arratsaldez, 15:30etik 21:00etarako ordutegian, bisitatu ahalko da.

Udaleko kultura sailak antolatutako ekimena izan da. Adierazi dutenaren arabera, 700 argazki inguruko bilduma osatu zuten iazko jaietan eta horietatik 300 inguru jarri dituzte ikusgai kultur etxean.

Gainera, nahi duenak gustuko duen argazkiaren kopia eskatzeko aukera ere izango du. Kopia bakoitzeko kostua 0,50 eurokoa izango da, eta eskuratzeko kultur etxeko harreran eskatu besterik ez da egin behar.

oibarralde@hitza.info



300 argazki inguru jarri dituzte ikusgai kultur etxean. HITZA



Urtero bezala, haurrentzat puzgarriak jarriko dituzte larunbatean. HITZA

Uzturpe ikastolaren kultur astea ekitaldiz betea dator

Astelehenean hasita, hitzaldiak, saio didaktikoak, irteerak, emanaldiak eta jokoak izango dira

I. Terradillos Ibarra

Hamaika ekitaldi antolatu dituzte Uzturpe ikastolakoek euren XII. kultur asterako. Datorren

aste osoan zehar bai ikasleei, gurasoei, bai eta herritar orori zuzendutako ekintzez gozatzeko aukera izango da.

Herritar guztientzako ekintzen artean, astelehen eta asteartean hitzaldiak izango dira kultur etxean. Bestetik, asteazkenean ikastola bisitatzeko aukera izango da. Ostegunean lasterka egingo dute Sahararen alde, eta larunbat arratsaldez, puzgarriak, dantza eta txokolatea izango dira.

↓ Egitaraua

URTARRILAK 30, ASTELEHENA

- 10:00. Euskal musika tresnen saio didaktikoa, ikastolan.
- 18:00. *Nik ere ondo bizi nahi dut Ibarra* hitzaldia (elebidun), Goyeneche Fundazioaren eskutik, kultur etxean.

URTARRILAK 31, ASTEARTEA

- 14:30. Jokoak eta jolasak tailerra, Azkue kaleko lokalean.
- 17:00. *Arreta gabezia eta hiperaaktibitatea*, TDAH hitzaldia, kultur etxean.

OTSAILAK 1, ASTEAZKENA

- 14:30. Jokoak eta jolasak tailerra, Azkue kaleko lokalean.

- **Ateak zabalik.** Emeterio Arresen, 2 urteko haurren gurasoentzat, 17:00etan (euskaraz), eta 18:30ean (gaztelerez).

OTSAILAK 2, OSTEGUNA

- 14:30. Elkartasun kilometroa egingo dute ikasleek udaleko ordezkariekin batera.

OTSAILAK 4, LARUNBATA

- 11:00. Jokoak eta jolasak tailerra, kiroldegian.
- 15:00. Puzgarriak kiroldegian.
- 18:00. Txokolatea kiroldegian.
- 18:30. Alurr dantza taldearen emanaldia, kiroldegian.

OTSAILAK 5, IGANDEA

- 09:00. Irteera Uli mendira.



IURREAMENDI EGOITZA TOLOSA

IRAGARKIA

Tolosako Iurreamendi Egoitzak sukalde arduradun bat kontratatu nahi du aldi baterako errelebo kontratuaren bidez.

Deialdi honen oinarriak eta eskaera orri normalizatuak Iurreamendi Egoitzako bulegoetan (Tolosako Iruña etorbideko 6an) eta Tolosako Udaleren web orrian (www.tolosakoudala.net) daude interesatuen eskural.

Eskaerak aurkezteko epea 2012ko otsailaren 6an bukatuko da.

Tolosan, 2012ko urtarrilaren 25a
Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria
Miren Urkola Irigoien

Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



7º
4º

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	6º
HOTZENA	1º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

DEIALDIAK

■ **Villabona-Zizurkil.** Jesusen Bihotza ikastolak antolatutako kultur astearen barruan gaur, 09:00etatik 12:30era, *Klasikoak Klasean* hitzaldia. Bihar, 10:00etatik 13:00etara, eskalada saioa Tolosako Usabal kiroldegian. Eta igandean, ibilaldi neurtua 09:00etatik aurrera.

■ **Tolosa.** Tolosa Kantarik kalejira egingo du bihar, 12:00etan Tontokaletik hasita.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Et Incarnatus Orkestraren emanaldi berezia gaur, 20:30ean, Leidorren.

■ **Tolosa.** Musika eskolako ikasleen kontzertua bihar, 19:00etan, eskolan bertan.

■ **Tolosa.** San Estebango auzo elkarteak grind eta rock estiloak jorratzen dituzten taldeak gonbidatu dituzte biharko.

22:30ean hasiko dira eta grind jotzen duen Ras taldearen eta rocka lantzen duen Lobo Electricoren emanaldiak izango dira.

■ **Tolosa.** Bonberenean gaur, 22:30etik aurrera, Bidaia taldearen emanaldia izango da. Mixel Ducau eta Caroline Phillips-ekin osatutako bikotea da Bidaia.

Bihar berriz, Ze Esatek! talde donostiarraren txanda izango da ordu berean.

■ **Tolosa.** Errota tabernan gaur, Bikusik bikotearen emanaldia 23:00etan, eta bihar, Paul San Martinena, ordu berean.

INAUTERIAK

■ **Areso.** Gaur hasiko dira Inauteriak, 18:00etan botako duten txupinazoarekin. Ondoren, herriko eskea egingo dute plaza Zaharretik abiatuta; 21:00etan afaria egingo dute; eta 22:30ean mus txapelketa. Bihar berriz, 09:00etan gosaltzeko bilduko dira; 10:00etan hasiko dute baserrietako eskea; 17:00etan karrozen desfilea izango da; 18:00eta trikitilariak izango dira; eta 21:30ean herri afaria egingo dute. Igandean amaituko dira Inauteriak; 14:00etan banabar txapelketa eta bertso bazkaria izango dituzte, ondoren bertsolariak izango dira, eta 17:30ean hurrenzako pelikula.

TXOTXONGILOAK

■ **Villabona.** *Katillukadax* txotxongilo emanaldia igandean, 16:30ean, Gurean.

Agurrak



Urte askoan!
Alaitz Iturrioz Zuriarrain.
Zorionak zure familiaren partetik potokita.



Urte askoan!
Aimar.
Zorionak Aimar, hire familiaren partetik.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 36 49.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



harpidedun izateak badu saria

irabazleak

1 Zabala Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com




■ **Santutxu taberna (Albiztur)**

Eskaera egiteko, hilabete

2 Isastegi Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Aldaba Txiki, 15
Tolosa
Tel.: 943-65 29 64
www.isastegi.com



■ **Mikel Garmendia (Villabona)**

Eskaera egiteko, hilabete

3 Sarasola Sagardotegia

Bi lagunentzako bazkaria

Asteasu
Tel.: 943-69 02 83



■ **Jose Amiano (Altzo)**

Eskaera egiteko, hilabete

4 EUREKA! zientzia museoa

Bi lagunentzat bina sarrera

Mikeletegi, 43-45
Donostia
Tel.: 943-01 24 78
www.eurekamuseoa.es



■ **Maria Jesus Lasa (Irura)**
■ **Xabier Artola (Ibarra)**

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, hilabetez.

5 'Zazpikoloroa' Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Bi lagunentzako bina sarrera

Belabieta kiroldegia • Ibarra
Otsailak 3 Ostirala • 18:00etan

■ **Eusebi Etxebeste (Ibarra)**
■ **Peio Zabala (Tolosa)**

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, hilabetez.

